

# APIRILA ABRIL

2018



Az  
Azkuna Zentroa

Alhóndiga Bilbao

# AURKIBIDEA

## ÍNDICE

<b>HILEKO LANKIDETZA LA COLABORACIÓN DEL MES</b>	
BENAT SARASOLA GUTUN ZURIA JAIALDIKO AHOLKULARIA ASESOR DEL FESTIVAL GUTUN ZURIA	5
<b>JAIALDIA FESTIVAL</b>	
GUTUN ZURIA BILBOKO LETREN XI. NAZIOARTEKO JAIALDIA	
XI FESTIVAL INTERNACIONAL DE LAS LETRAS DE BILBAO	7
<b>ARTEA ETA KULTURA ARTE Y CULTURA</b>	
<b>ERAKUSKETA EXPOSICIÓN</b>	
'BY ALL MEANS'. ITZIAR BARRIO	19
<b>ZINEMATEKA</b>	
'BY ALL MEANS'. ITZIAR BARRIO	20
<b>BIDEOTIK</b>	
'ZINEMAKO MUSIKA: IRUZURAREN ARTEA' 'LA MÚSICA DE CINE. EL ARTE DEL ENGAÑO'. ARAN CALLEJA	21
<b>AMPHITRYON</b>	
ERAKUSKETA EXPOSICIÓN: 'LA LÍNEA RECTA NO ES LA MÁS CORTA' MIRIAM ISASI & JOSÉ MANUEL MESÍAS	22
DANTZA GARAICKIDEA DANZA CONTEMPORÁNEA. JOHANNA TENGAN & NATALIA DE MIGUEL	24
<b>MUSIKA ETA SOINUA MÚSICA Y SONIDO</b>	
INSTALAZIOA INSTALACIÓN 'ORQUESTA FIN DE DISCO'. DAVID CÍVICO	25
SINPOSIOA SIMPOSIO 'SOINUA ETA EKINTZA' 'SONIDO Y ACCIÓN'	26
KONTZERTUA CONCIERTO. AKAUZAZTE	27
<b>HEZKUNTZA PROGRAMA PROGRAMA DE MEDIACIÓN</b>	
LABORATORIO PLAYTIME. JUNE CRESPO	28
<b>EREMUAK</b>	
ERAKUSKETA EXPOSICIÓN: 'BI DOS TWO'	29
<b>KOMISARIO BERRIAK</b>	
KOMISARIOTZAKO PROIEKTUAK PROYECTOS DE COMISARIADO	29
<b>LASTER PRÓXIMAMENTE</b>	30
<b>MEDIATEKA BBK</b>	
<b>ZIENTZIAKETA</b>	28
<b>JOKUPLAY</b>	29
<b>JARDUERA FISIKOKO ZENTROA CENTRO DE ACTIVIDAD FÍSICA</b>	
SPINNING EDO POOLBIKE, ERAGIN PEDALEI NAHI DUZUN TOKIAN	
SPINNING O POOLBIKE, PEDALEA DONDE QUIERAS	37
EPEA ZABALIK UDAKO IKASTAROETAN IZENA EMATEKO	
ABIERTA LA INSCRIPCIÓN PARA LOS CURSOS DE VERANO	38
PUZGARRIAK IGERILEKUAN HINCHABLES EN LA PISCINA	
AZKUNA ZENTROAREN ERRONKA EL RETO DE AZKUNA ZENTROA	39
KANPOKO PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN EXTERNA	41
MERKATARITZA GUNEA ESPACIO COMERCIAL	43
INFORMAZIO OROKORRA INFORMACIÓN GENERAL	45
<b>AzNEWS</b>	47
<b>PLANOA PLANO</b>	49
<b>APIRILEKO JARDUEREN EGUTEIGIA CALENDARIO ACTIVIDADES DE ABRIL</b>	50



# Beñat Sarasola

Gutun Zuria Jaialdiko aholkularia  
Asesor del Festival Gutun Zuria

## NATURARA ITZULTZEA: UTOPIA LITERARIOA OTE?

Gure gizarte industrial eta teknologizatuak naturari bizkarra eman diolarik urte luzetan, idazle askoren kezka izan da naturarekiko hurbilpen prestuago bat osatzea. Horietan aitzindari izan genuen Henry David Thoreau, iaz berrehun urte jaio zena, eta hortik tiraka, anglosaxoiek ‘nature writing’ (natura-idazketa) deitu izan diotenaren inguruan mugituko da 2018ko Gutun Zuria.

Ekologiaren galdera nagusiak literaturarekin gurutzatzen diren eremu hori zeharkatuko du: Nola idatzi izadia? Nola harremantzen gara gizakiok naturarekin? Nola idatzi naturaren hondamendia geldiarazteko? Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiak, bada, natura eta gizakia, sarri hain banandurik daudenak, pixka bat gehiago batuko ditu literaturaren bidez. Esker txarrekoak izaten gara maiz gure jatorriarekin, eta hala, natura mespretxatzeraino iritsi gara. Literaturaren bidez, bortizkeriaren kontrako ukendu behinena izan daitekeen horren bidez alegia, naturaranzko itzulera-bidaian abiatuko gara, naturarentzat hitz justuago batzuen bila.

Beñat Sarasola

## REGRESO A LA NATURALEZA: ¿UTOPIA LITERARIA?

Después de que durante muchos años nuestra sociedad industrial y tecnologizada haya dado la espalda a la naturaleza, muchos escritores han tratado de acercarse de un modo más honesto a ella. Uno de los precursores fue Henry David Thoreau, y el año pasado se cumplieron doscientos años de su nacimiento. Debido a ello, el certamen Gutun Zuria de 2018 girará en torno a lo que el mundo anglosajón denomina ‘nature writing’ (escritura natural).

En esta edición cruzaremos esa zona en la que las preguntas principales de la ecología se encuentran con la literatura: ¿Cómo escribir sobre la naturaleza? ¿Cómo nos relacionamos los seres humanos con la naturaleza? ¿Cómo escribir para detener la destrucción de la naturaleza? Así pues, el Festival Internacional de las Letras de Bilbao se valdrá de la literatura para tratar de unir un poco más la naturaleza y el ser humano, a menudo tan distantes. No solemos expresar agradecimiento hacia nuestro origen, y hemos llegado incluso a despreciar a la naturaleza. La literatura puede ser la mejor pócima contra la violencia, así que, por medio de ella, emprenderemos un viaje de vuelta a la naturaleza, en busca de unas palabras más justas para ella.

Beñat Sarasola



# gutunzuria

BILBOKO LETREN XI.  
NAZIOARTEKO JAIALDIA

XI FESTIVAL INTERNACIONAL  
DE LAS LETRAS DE BILBAO

XI BILBAO INTERNATIONAL  
LITERATURE FESTIVAL

GUTUN ZURIA

Apirilaren 23tik 29ra

Azkuna Zentroak antolatzen duen Gutun Zuria, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia, apirilaren 23tik 29ra bitartean ospatuko da. ‘Naturara itzultzea, Utopia literarioa ote?’ izenburupean jaialdiak XI. edizioa ospatuko du. Aurten ere, bertan, literatura garaikidearen izen handiak parte hartuko dute.

‘Walden’ edota ‘Desobedientzia zibila’ lanen autorea den David Thoreau idazlearen berrehungaren urteurrenaren atze-oihal izanik, Jaialdiak naturarekin harremanetan mantentzeko beharraren hausnarketa, pertsonen eta naturaren arteko orekaren sustapena eta natura basatiaren itzulera paradistu galdu gisa proposatzen du.

Aurten izen handiko idazleak egongo dira; **Manuel Rivas, Stefano Mancuso, Eudald Carbonell, Maja Lunde, Lars Mytting, Terry Tempest Williams, Bernardo Atxaga, Hasier Larratxea, Ixiar Rozas, Maider López, Aingeru Epaltza, Juanra Madariaga eta César Aira**, besteak beste.

Naturak berez duen laztura eta edertasuna azaleratzen dute idazle hauek. Izan ere, testuek nahitaezko proposamena dute. Ekimen honek ez du bat egiten gero eta handiagoa den teknifikazio garaikidearekin. Idazleek naturara begiratzen dute pertsonak eta natura gauza bera direla uste osoa izanda. Idazle hauek poztasunaren alde idazten dute barru barruko eta banakako sentimendua oinarri izanik.

Del 23 al 29 de abril

Gutun Zuria, el Festival Internacional de las Letras de Bilbao, organizado por Azkuna Zentroa, celebra del 23 al 29 de abril su XI edición. Bajo el título ‘Regreso a la naturaleza ¿Utopía literaria?’, el certamen reúne un año más a figuras relevantes de la literatura contemporánea.

Teniendo como telón de fondo el bicentenario del defensor universal natural, Henry David Thoreau, autor de ‘Walden’ o ‘Desobediencia civil’, el Festival propone una reflexión en torno a la necesidad de mantenernos en comunicación con la naturaleza, propiciar el equilibrio entre esta y la persona, y la vuelta a la naturaleza salvaje como el paraíso perdido.

Gutun Zuria contará este año con la presencia de autores de la talla de **Manuel Rivas, Stefano Mancuso, Eudald Carbonell, Maja Lunde, Lars Mytting, Terry Tempest Williams, Bernardo Atxaga, Hasier Larratxea, Ixiar Rozas, Maider López, Aingeru Epaltza, Juanra Madariaga y César Aira**.

Todos ellos son escritores y escritoras que narran el horror y la belleza que encierra la naturaleza pero cuyos textos contienen una propuesta vital. Una propuesta que no tiene que ver con la creciente y por momentos preocupante tecnificación contemporánea. Escritores y escritoras que vuelven la mirada a la naturaleza convencidos de que personas y naturaleza somos lo mismo. Escritores y escritoras que, convencidos desde un sentimiento íntimo e individual, escriben, en definitiva, a favor de la felicidad.

Laguntzaileak Colaboradores:



Co-funded by the  
Creative Europe Programme  
of the European Union



Embajada de Noruega

# gutunzuria

EKITARUA PROGRAMA | 23 > 29 APIRILA ABRIL

<b>IKUSKIZUNA ESPECTÁCULO</b> Auditorio Auditorio 19:30
---

<b>SOLASEAN EN CONVERSACIÓN</b> Auditorio Auditorio 19:30 3€ / <b>2€</b>
---

<b>ZINEMATEKA</b> Cines Golem Zinemak 17:00 4,5€ / <b>3,5€</b>
---

<b>IRAKURLEAREN ORDUA</b> LA HORA DEL LECTOR Erakusketa Aretoko Ataurrea Vestíbulo Sala Exposiciones 21:00
---

<b>SPOKEN WORD BILBAO</b> JOZ CAC 1 21:00 6€ / <b>4€</b>
---

**23 ASTELEHENEA**  
LUNES

**LIBURUAREN EGUNA  
DÍA DEL LIBRO  
'ELE'**  
Musika-ikuszkizuna  
Espectáculo de música  
10€ / **8€**

**24 ASTEARTEA**  
MARTES

**INAUGURAZIOA  
INAUGURACIÓN  
'CLARA'**  
Natalia de Miguel  
Dantza-ikuszkizuna  
Espectáculo de danza

**25 ASTEAKZENA**  
MIERCOLES

**MANUEL RIVAS  
EUDALD  
CARBONELL  
STEFANO  
MANCUSO**

**MAJA LUNDE  
LARS MYTTING**

**DERSU UZALA  
(EL CAZADOR)**  
Akira Kurosawa  
**WILD  
(ALMA SALVAJE)**  
Jean-Marc Vallée

**MANUEL RIVAS  
EUDALD  
CARBONELL  
STEFANO  
MANCUSO**

**MAJA LUNDE  
LARS MYTTING**

**10 APIRILA ABRIL > 6 MAIATZA MAYO**  
ERAKUSKETA EXPOSICIÓN  
**BIDAIA XIX. MENDEKO EUSKAL HERRIAN**  
**BARRENA UN VIAJE POR LA EUSKAL**  
**HERRIA DEL SIGLO XIX**

**10 > 19 APIRILA ABRIL**  
**ZIENTZIAK**  
**LITERATURA, NATURA ETA ZIENTZIA**  
**LITERATURA, NATURALEZA Y CIENCIA**  
Informazio gehiago 33 horrialdean  
Más información en la página 33

# gutunzuria

EGITARUA PROGRAMA | 23 > 29 APIRA ABRIL

GUTUN ZURIA

**26** OSTEGUNA  
JUEVES

BERNARDO  
ATXAGA  
HASIER  
LARRETXEA

**27** OSTIRALA  
VIERNES

IXIAR ROZAS  
MAIDER LOPEZ

**28** LARUNBATA  
SÁBADO

18:00  
AINGERU EPALTZA  
JUANRA  
MADARIAGA  
19:30  
TERRY TEMPEST  
WILLIAMS

**29** IGANDEA  
DOMINGO

CÉSAR AIRA

BERNARDO  
ATXAGA  
HASIER  
LARRETXEA

IXIAR ROZAS  
MAIDER LOPEZ

AINGERU EPALTZA  
JUANRA  
MADARIAGA  
TERRY TEMPEST  
WILLIAMS

CÉSAR AIRA

'BEREZKO EGOERAK'  
'ESTADOS NATURALES'  
Spoken Word Bilbao  
Nazioarteko I. Erakusketa  
I Muestra Internacional  
Spoken Word Bilbao

**20, 21 APIRA ABRIL**

**GORA GURE ENERGIA**  
VIVA NUESTRA ENERGÍA

DIDAKTIKA DIDÁCTICA

**23 > 29 APIRA ABRIL**

**'MENHIR (INSTALACIÓN 0)'**

INSTALAZIOA INSTALACIÓN

# gutunzuria

SOLASEAN EN CONVERSACIÓN  
Auditorioa Auditorio

**24 ABRIL**  
**ASTEARTEA MARTES**

**19:30**

**MANUEL RIVAS, EUDALD CARBONELL, STEFANO MANCUSO**

**MANUEL RIVAS (A Coruña, 1957)**



©Sol Mariño

Narratzailea, olerkaria eta kazetaria. Prentsan, irratian eta telebistan egin du lana. Azkenengo olerki-lana *La boca de la tierra da* (Visor Libros, 2016). Narratibako Sari nazionala eman zioten *¿Qué me quieras, amor?* kontakizun-liburugatik (Alfaguara, 2009), eta *La lengua de las mariposas* filmaren inspirazio-iturria izan zen. Kritikaren saria lortu zuten haren lau eleberrik; azken saria *El último día de Terranova* (2016) lanagatik lortu du. *El lápiz del carpintero* (Alfaguara, 1998) zinerako egokitu zuten, eta 30 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dute.

Narrador, poeta y periodista. Ha trabajado en prensa, radio y televisión. Su obra poética más reciente es *La boca de la tierra* (Visor Libros, 2016). Recibió el premio Nacional de Narrativa por su libro de relatos *¿Qué me quieras, amor?* (Alfaguara, 2009), que inspiró la película *La lengua de las mariposas*. Fue premio de la Crítica por cuatro de sus novelas, la más reciente *El último día de Terranova* (2016). *El lápiz del carpintero* (Alfaguara, 1998), también llevada al cine, ha sido traducida a más de 30 lenguas.

**EUDALD CARBONELL (Ribes de Freser, Ripollès, 1953)**



©Susana Santamaría,  
Fund. Atapuerca

Aurrehistorialaria eta Filosofia eta Letretan lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (1976). Hainbat indusketa egin ditu Europako eta Afrikako aztarnategietan. Atapuerca Fundazioko patrono sortzailea eta presidenteordea da. Horrez gain, dibulgatzalea-lana egin du, eta saikera asko atera ditu, giza kondizioaz duen ikuspegia -paleoantropólogo-prestakuntzaren eta marxismoan oinarritutako giza garaparen etikaren eragina duena- azaltzeko.

Prehistoriador y licenciado en filosofía y letras por la Universidad Autónoma de Barcelona (1976). Ha realizado numerosas excavaciones en yacimientos europeos y africanos. Es patrono fundador y vicepresidente de la Fundación Atapuerca. Destaca también como divulgador y autor de numerosos ensayos en los que expone su visión de la condición humana, influida por su formación de paleoantropólogo y por una ética del progreso humano basada en el marxismo.

**STEFANO MANCUSO (Catanzaro, Italia, 1965)**



Mancuso landare-neurobiologien sortzailea, Florentziako Unibertsitateko irakaslea, Sorbonne-Paris-Cité Unibertsitateko eta Kitakyushu Unibertsitateko (Japonia) irakasle elkartua, eta Landare Neurobiologiako Nazioarteko Laborategiko zuzendaria da. 'Zure bizitza aldatuko duten 20 pertsonetako bat' zerrendarako hautatu zuten (*La Repubblica*, 2014). Idatzi dituen oraintsuko liburuuen artean, *Verde Brillante* (Giunti Editore 2013) eta *Plant Revolution* (Giunti Editore 2017) nabarmentzen dira.

Mancuso, fundador de la neurobiología vegetal, es profesor de la Universidad de Florencia, profesor asociado de la Universidad Sorbonne-Paris-Cité y de la Universidad de Kitakyushu (Japón), y director del Laboratorio Internacional de Neurobiología Vegetal. Ha sido seleccionado como una de las '20 personas que cambiarán tu vida' (*La Repubblica*, 2014). Entre sus libros más recientes destaca el premiado *Verde Brillante* (Giunti Editore 2013) y *Plant Revolution* (Giunti Editore 2017).

# gutunzuria

SOLASEAN EN CONVERSACIÓN  
Auditorioa Auditorio

**25 ABRIL**  
**ASTEAKENA MIÉRCOLES 19:30**

**MAJA LUNDE, LARS MYTTING & IDOIA JAUREGI**

**MAJA LUNDE** (Oslo, 1975)



©Oda Berby

Maja Lunde Norvegiako idazlea eta gidoilaria da. Haurrentzako eta gazteentzako liburuak idazten ditu, hala nola *Battle* edota *Children's Super-show* telebistako serieko gidoia ere. Heldenutzako lehenengo eleberria *Historia de las abejas* izan zen (Siruela, 2016). Orain arte 32 herrialdetan saldu dira argitalpen-eskubideak, eta zenbait sari jaso ditu. Alemanian 2017an gehien saldu zen liburua izan zen. Haren azkenengo eleberria *Blue* da (Espainian oraindik editatu gabea), klimari buruz Lunde-k planifikatutako laukoteko bigarren liburua.

Maja Lunde, escritora y guionista noruega, es autora de libros para niños y jóvenes como *Battle* y series de televisión como *Children's Supershow. Historia de las abejas* (Siruela, 2016) fue su primera novela para adultos. Hasta ahora, los derechos de publicación se han vendido en 32 países y ha recibido varios premios. Fue el libro más vendido en Alemania en 2017. Su última novela es *Blue* (aún no editada en España) segundo libro del Cuarteto Climático planificado por Lunde.

**LARS MYTTING** (Fåvang, Noruega, 1968)



©Julie Pike


Lars Mytting kazetaria eta editorea izan zen, denbora osoz idazten hasi aurretik. 2006an argitaratu zuen lehenengo eleberria, *Hestekrøter*, eta arrakasta handia izan zuen Eskandinavia osoan. 2010ean *El libro de la madera. Una vida en los bosques* (Alfaguara, 2016) liburuaren 300.000 ale baino gehiago saldu ziren soiliik Suedian eta Norvegian, eta ikus-entzule ugari lortu zuen telebistako saio bat egin zuten. Azkenengo eleberriak, *Los diecisés árboles del Somme* (Alfaguara, 2017), Norvegiako liburu-saltzaileen saria lortu du.

Lars Mytting trabajó como periodista y editor antes de dedicarse por completo a la escritura. En 2006 publicó su primera novela, *Hestekrøter*, que fue un éxito de ventas en Escandinavia. En 2010, *El libro de la madera. Una vida en los bosques* (Alfaguara, 2016) vendió más de 300.000 ejemplares solo en Suecia y Noruega, y se convirtió en una serie de televisión de gran audiencia. Su última novela, *Los diecisés árboles del Somme* (Alfaguara, 2017) ha ganado el Premio de los Libreros de Noruega.

**26 ABRIL**  
**OSTEGUNA JUEVES 19:30**

**BERNARDO ATXAGA, HASIER LARRETXEA & KARMELE JAIO**

**BERNARDO ATXAGA** (Asteasu, Gipuzkoa, 1951)



Joseba Irazu Garmendia. Ekonomia Zientietan lizentziatu zen Bilboko Unibertsitatean, eta hainbat lanbidetan aritu izan zen azkenik, laurogeiko hamakadaren hasiera aldera, literaturari bete-betean ekin zion arte. Liburuok argitaratu ditu, beste hainbatetan artean: *Bi anai* (1985), *Obabakoak* (1988), *Gizona bere bakardadean* (1993), *Zeru horiek* (1995), *Soinujolearen semea* (2003), *Zazpi etxe Frantzian* (2009) eta *Nevadako egunak* (2013). Bere obra, 32 hizkuntzatan irakur daitekeena.

Joseba Irazu Garmendia. Licenciado en Ciencias Económicas por la Universidad de Bilbao, desempeñó oficios variopintos hasta que en los ochenta consagró su quehacer exclusivamente a la literatura. Autor, entre otros, de *Obabakoak*, (1989), *El hombre solo* (1994), *Dos hermanos* (1995), *Esos cielos* (1997), *El hijo del acordeonista* (2004), *Siete casas en Francia* (2009) y *Días de Nevada* (2013). Su obra puede leerse en 32 lenguas.

# gutunzuria

SOLASEAN EN CONVERSACIÓN  
Auditorioa Auditorio

**26** APIRILA ABRIL  
OSTEGUNA JUEVES

19:30

**BERNARDO ATXAGA, HASIER LARRETXEA & KARMELE JAIO**

**HASIER LARRETXEA** (Arraizoz, Nafarroa Navarra, 1982)



Hesier Larretxea 1982an jaio zen, Nafarroako Baztan haranean dagoen Arraizoz herrian. Aspaldi da Madrilen bizi dela. Aurten eman du argitara narratiboko lehen liburua gaztelaniaz, *El lenguaje de los bosques izenekoa* (Espasa, 2018), Zuri Negrín-en ilustrazioz eta Paola Lozanoren argazkiz atondua. Horrez gain, poema-liburu hauek atera ditu: *Meridianos de tierra* (Harpo Libros, 2017), *De un nuevo paisaje* (Stendhal Books, 2016), *Niebla fronteriza* (El Gaviero, 2015), *Atakak* (Alberdania, 2011), bestea beste.

Hesier Larretxea nació en Arraizoz, (Valle de Baztan, Navarra). Hace años que vive en Madrid. Este año ha publicado su primer libro de narrativa en castellano, *El lenguaje de los bosques* (Espasa, 2018) con ilustraciones de Zuri Negrín y fotografías de Paola Lozano. Ha publicado además los poemarios *Meridianos de tierra* (Harpo Libros, 2017), *De un nuevo paisaje* (Stendhal Books, 2016), *Niebla fronteriza* (El Gaviero, 2015), *Atakak* (Alberdania, 2011), entre otros.

**27** APIRILA ABRIL  
OSTIRALA VIERNES

19:30

**IXIAR ROZAS, MAIDER LOPEZ & IÑIGO ASTIZ**

**IXIAR ROZAS** (Lasarte-Oria, 1972)



Ixiar Rozas Elizalde idazlea, antzerkigilea eta ikertzailea da. Haren obran, *Negutegia* (Pamiela, 2006) eta *Beltzuria* (Pamiela, 2014) lanak galientzen dira. Modu praktikoan eta teorikoan lantzen du ahotsauren, gorputzaren eta lengoaiaaren materialitatearen arteko espazioa, eta eszena- eta soinu-lan batzuk eman ditu argitara. Arte Ederretan doktorea (UPV/EHU), heziketa artistikoko irakaslea (Mondragon Unibertsitatea) eta Azala espazioko kidea da.

Ixiar Rozas Elizalde es escritora, dramaturga e investigadora. En su obra destacan títulos como *Negutegia* (Pamiela, 2006) y *Beltzuria* (Pamiela, 2014). También trabaja de forma práctica y teórica el espacio entre la voz, el cuerpo y la materialidad del lenguaje, publicando diferentes trabajos escénicos y sonoros. Es Doctora en Bellas Artes (UPV/EHU), profesora de educación artística (Mondragon Unibertsitatea) y forma parte de Azala espacio.

**MAIDER LOPEZ** (Donostia San Sebastián, 1975)



Maider López artistak bere lanean espacio públicoan eta arkitekturan esku-hartzeak egiten ditu. Esku-hartzeetan, ikusleen parte-hartzea behar izaten da askotan, eta ezarritako jokabide-arauak azaleratzen dira. Gauzen eta tokien estatismoarekin hautsi, negoziazioaren lurraldea ireki, eta ikusteko eta harremanak izateko modu berrien bila eramatzen gaitu. Haren obra Estatuan eta nazioartean erakutsi da, hala nola Veneziako bienalean.


Maider López desarrolla su trabajo interviniendo en el espacio público y la arquitectura. Sus intervenciones requieren a menudo de la participación de las personas espectadoras y desvelan reglas de comportamiento impuestas. Rompe con el estatismo de las cosas y los lugares abriendo el territorio de la negociación y llevando a buscar nuevos modos de ver y de relacionarse. Su obra ha sido ampliamente expuesta nacional e internacionalmente, por ejemplo, en la Bienal de Venecia.

# gutunzuria

SOLASEAN EN CONVERSACIÓN  
Auditorioa Auditorio

**28 ABRIL** LARUNBATA SÁBADO **18:00** **TINGERU EPALTZA, JUANRA MADARIAGA & MIEL ANJEL ELUSTONDO**

## AINGERU EPALTZA (Iruñea Pamplona, 1960)



Kazetaria eta itzultzalea. Haur literaturako idazlea eta nobela hauen egilea: *Sasiak ere begiak baditik* (Elkar, 1986), *Garretatik erauzitakoak* (Elkar, 1989), *Ur uherrak* (Pamiela, 1993), *Tigre ehi-zan* (Elkar, 1996), *Rock'n'roll* (Tarttalo, 2000), *Mailuaren odola* (Elkar, 2006), *Izan bainintzen Nafarroako errege* (Elkar, 2009), *Gure Jerusalem galdua* (Elkar, 2013), *Lasto sua* (Alberdania, 2005) eta *Mendi-joak* (Elkar, 2017). 1997ko Euskadi Literatur Saria irabazi zuen.

Periodista y traductor. Escritor de literatura infantil y autor de *Sasiak ere begiak baditik* (Elkar, 1986), *Garretatik erauzitakoak* (Elkar, 1989), *Ur uherrak* (Pamiela, 1993), *Tigre ehi-zan* (Elkar, 1996), *Rock'n'roll* (Tarttalo, 2000), *Mailuaren odola* (Elkar, 2006), *Izan bainintzen Nafarroako errege* (Elkar, 2009), *Gure Jerusalem galdua* (Elkar, 2013), *Lasto sua* (Alberdania S.L., 2005) y *Mendi-joak* (Elkar, 2017). En 1997, ganó el Premio Euskadi de Literatura.

## JUANRA MADARIAGA (Bilbao, 1962)



Olerkaria eta Euskal Filologian lizenziaduna da Deustuko Unibertsitatean. Zenbait liburu idatzi ditu, besteak beste, *Imentzioaren pergamuak* (Bizkaiko Foru Aldundia, 1989), *Galera errepikatuak* (Susa, 1992), *Elaien ausardia* (Deustuko Unibertsitatea, 1993), *Argia sortzen den izartegia* (Alberdania, 1996) Kritikaren Saria, 1997, eta *Amodia batzuetan* (Euskaltzaindia, 2001) Euskaltzaindiaren Saria, 2000. 2017an, *Las aguas tranquilas. Ocho poetas vascos actuales* (Renacimiento, 2017) antologian argitaratu zituen poemak.

Poeta, licenciado en Filología Vasca por la Universidad de Deusto. Ha publicado *Imentzioaren pergamuak* (Bizkaiko Foru Aldundia, 1989), *Galera errepikatuak* (Susa, 1992), *Elaien ausardia* (Universidad de Deusto, 1993), *Argia sortzen den izartegia* (Alberdania, 1996) Premio de la Crítica 1997 y *Amodia batzuetan* (Euskaltzaindia, 2001) Premio de la Academia de la Lengua Vasca, 2000. En 2017, publica sus poemas en la antología *Las aguas tranquilas. Ocho poetas vascos actuales* (Renacimiento, 2017).

**28 ABRIL** LARUNBATA SÁBADO **19:30**

**TERRY TEMPEST WILLIAMS & FRANCISCO FERRER LERÍN**

## TERRY TEMPEST WILLIAMS (Corona, California California, 1955)



Terry Tempest Williams idazlea eta ingurumen-arloko aktibista da. Haren ahots kritiko eta ausarta Estatu Batuetako Kongresuan eta Etxe Zurian entzun da. Haren saiakeren ardatzak ekologia, basa-bizitza zaintzea eta emakumeen eskubideak izan dira. Haren memoria-liburua, *Refugio* (Errata Natura, 2018), XX. mendeko literatura ekologistako lanik handienetako bat dela esaten da. Gaur egun Brooke Williams senararekin bizi da Utah hegoaldeko harkaitz gorriekiko basamortuan.

Escritora y activista medioambiental. Su voz, crítica y valiente, se ha hecho oír en el Congreso de los EEUU y en la Casa Blanca. Sus ensayos se han centrado en el ámbito de la ecología, la preservación de la vida salvaje y los derechos de las mujeres. Su libro de memorias, *Refugio* (Errata Natura, 2018) es considerado una de las obras claves de la literatura ecologista del siglo XX. Actualmente vive con su marido, Brooke Williams, en el desierto de roca roja del sur de Utah.

# gutunzuria

SOLASEAN EN CONVERSACIÓN  
Auditorioa Auditorio

**29 ABRIL**  
OSTEGUNA JUEVES

19:30

**CÉSAR AIRA & MARÍA LUISA BLANCO**

**CÉSAR AIRA** (Buenos Aires, 1949)



©Mathieu Bourgois

César Aira idazlea bere herrialdeko egilerik oparoeneko bat da. Haren bibliografia luzean, lan hauek gailentzen dira: *Ema, la cautiva* (Belgrano, 1981), *Cómo me hice monja* (Viterbo, 1993), *El congreso de literatura* (Mondadori, 2012), *Los fantasmas* (Mondadori, 2013), *El santo* (Mondadori, 2015), *Las curas milagrosas del Doctor Aira* (Random House, 2015), eta *Evasión y otros ensayos* (Random House, 2017). Azken eleberria, *Prins* (Random House, 2018), apirlean emango da agitara.

El escritor César Aira es uno de los autores más prolíficos de su país. En su extensa bibliografía destacan títulos como *Ema, la cautiva* (Belgrano, 1981), *Cómo me hice monja* (Viterbo, 1993), *El congreso de literatura* (Mondadori, 2012), *Los fantasmas* (Mondadori, 2013), *El santo* (Mondadori, 2015), *Las curas milagrosas del Doctor Aira* (Random House, 2015) y *Evasión y otros ensayos* (Random House, 2017). Su última novela, *Prins* (Random House, 2018) se publica este mes de abril.

## JARDUERA PROGRAMA PROGRAMA DE ACTIVIDADES

### 'ELE!' MUSIKA-IKUSKIZUNA ESPECTÁCULO MUSICAL

Apirilak 23 de abril, 19:30

Auditorioa Auditorio

10€ / 8€



©Josu Maroto

ELE! Ikuskizun berritzalea da, jarduera musikalez, poetiko-errezitabioz eta dantzako koreografiez betea; eta aurreko mendeko hainbat poeta ekarriko dizkigu orainera, arteko giza balioak eta aniztasuna hizpide izateko.

1930. hamarkadatik aurrera, belaunaldi berbereko hainbat sortzaile poesía eta artea, oro har, errealtate sozialera gehiago hurbiltzearen alde agertu ziren. García Lorca, Lauaxeta, Hernández, Cernuda eta, pixka bat beranduago, Gabriel Aresti hurbilketa horren babesle gailenak izan ziren. Egile horien guztien lanak bateratz, ELE! programak arte garaikideak herri-kulturarekin duen konpromisoa islatu nahi du, bide artistiko berriak urratu nahian.

Garai hauetan, artean zentsura berriz ikusten ari garela, ezinbestekoa da sortzaileek askatasunarekin duten konpromisoa berritzea.

ELE! es un innovador espectáculo con actuaciones musicales, poético-recitativas y coreografías de danza, que trasladan al presente a varios poetas del siglo pasado, con el propósito de disertar sobre la pluralidad y los valores humanos en el arte.

A partir de 1930 varios creadores de la misma generación se mostraron favorables a que la poesía y el arte, en general, se acercaran más a la realidad social. García Lorca, Lauaxeta, Hernández, Cernuda, y, algo más tarde, Gabriel Aresti, fueron claros defensores de ese acercamiento. Integrando obras de todos ellos, ELE! refleja el compromiso del arte contemporáneo con la cultura popular, intentando abrir nuevas vías artísticas.

En estos tiempos en los que vemos de nuevo la censura en el arte, es preciso renovar el compromiso de los creadores con respecto al arte.

### JAIALDIAREN INAUGURAZIOA INAUGURACIÓN DEL FESTIVAL

## 'CLARA' NATALIA DE MIGUEL

AMPHYTRION 2017

DANTZA-IKUSKIZUNA

ESPECTÁCULO DE DANZA

Apirlak 24 de abril, 19:30

Auditorioa Auditorio



Arten, **Natalia de Miguel** (Bilbao, 1986) koreografoaren 'Clara' piezarekin inauguratuko dugu jaialdia. Bilboko artistak Azkuna Zentroaren dantza garaikideko egonaldian egin duen lanaren emaitza da obra. Egonaldia 'Amphytrion' barruan sartzen da, zuzeneko arteen eta erakusketen inguruko ikerketa, sorkuntza eta ekoizpena sustatzen dituen proiektuan, eta hari esker truke bat egiten da, dantza garaikideko Dansateliers Rotterdam sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin lankidetzan.

'Clara' lanak gure balio eta lehentasunei buruzko gozoeta bat planteatzen du, ez soiliik artean baizik eta gaurko munduaren alderdi askotan ere.

Este año se inaugura el Festival con la pieza 'Clara' de la coreógrafa **Natalia de Miguel** (Bilbao, 1986). Esta obra es el resultado del trabajo realizado por la artista bilbaína durante su residencia de danza contemporánea en Azkuna Zentroa. Esta residencia se enmarca en el proyecto Amphitryon de apoyo a la investigación, creación y producción en torno a las artes en vivo y expositivas, y consiste en un intercambio en colaboración con el centro de creación y exhibición de danza contemporánea Dansateliers Rotterdam.

'Clara' plantea una reflexión sobre nuestros valores y prioridades no solo en el arte sino en muchos aspectos del mundo actual.

### INSTALAZIO INTERAKTIBOA INSTALACIÓN INTERACTIVA

## 'MENHIR (INSTALACIÓN 0)'

Apirlak 23 > 29 de abril

Kulturen Ataria Atrio de las Culturas

Sarrera dohainik Entrada libre



'Menhir Instalación 0' gonbidapen bat da hirikoak ez diren lurradeak esploratzeko, musika erabiliz, ikus-entzuleen eta mendiaaren artean harremana ezartzeko. Iván Cebrián musikariak eta Coco Moya artista bisualak sortu duten proiektu honek paisaia esploratzen du instalazio-instrumentu interaktibo baten bidez.

Espazio honetan, ikatzezko harriak zabaldu egiten dira, zeharkatzeko eta ukitzeko moduko ingurune bat sortzeko. Zatiki hauek soinua kontrolatzen dute, halako moldez non, haiiek ukitzean, ikusle-interpretatzailea den pertsonak soinu-espazio bat konposatzen baitu in situ.

'Menhir Instalación 0' es una invitación a la exploración de territorios no urbanos, usando la música para establecer una relación entre el público y la montaña. Este proyecto, creado por el músico Iván Cebrián y el artista visual Coco Moya, es una exploración del paisaje a través de una instalación-instrumento interactiva.

En este espacio, las piedras de carbón se expanden para formar un entorno que se puede recorrer y tocar. Estos fragmentos sirven de controladores de sonido de tal manera que al tocarlos, la persona espectadora-intérprete compone, in situ, un espacio sonoro.

# gutunzuria

JARDUERAK ACTIVIDADES

## BEREZKO EGOERAK ESTADOS NATURALES SPOKEN WORD BILBAO NAZIOARTEKO I. ERAHKUSKETA I MUESTRA INTERNACIONAL SPOKEN WORD BILBAO Apirilak 27 de abril, 21:00 JOZ CAC 1. 6€ / 4€

Azkuna Zentroak Spoken Word Bilbao Nazioarteko I. Erakusketa antolatu du. Poesía experimentalera berri bat da: ahozkotasunaren, ahotsaren eta haren kadenziaren bidez, eta ahoz ari den gorputzak ingurunarekin eta ikus-entzulearekin duen erlazioaren bidez.

'Berezko egoerak' instalazio-esparru batean egituratutako adierazpide poetiko gisa sortu da. Hor, hala mintzo den ahotsa nola entzulearen isiltasuna, eszena eratzen duen nahas-mahasaren parte izango dira. Unibertsalaren aldezelia izandako Henry David Thoreau jaio zela berrehun urte bete direla-eta sortu da ikuskizuna.

Portugal, Holanda, Belgika eta Erresuma Batutik iritsitako gonbidatuak izango ditu. Gainera, erakusketan, hemengo eta estatuko ahozko poetak egongo dira.



Azkuna Zentroa organiza la I Muestra Internacional Spoken World Bilbao. Una nueva manera de experimentar la poesía a través de la oralidad, la voz y su cadencia, la relación del cuerpo parlante con el entorno y el espectador.

'Estados naturales' nace como una manifestación poética estructurada dentro de un marco instalativo, donde tanto la voz de quien habla como el silencio de quien escucha formarán parte de la miscelánea que completa la escena, creada con motivo del bicentenario del defensor del universo natural, Henry David Thoreau.

La muestra contará con diferentes invitados venidos desde Portugal, Holanda, Bélgica o Reino Unido. Además, en la exhibición participarán poetas orales del ámbito local y estatal.

## INGURUMENARI BURUZKO PROGRAMA PROGRAMA MEDIOAMBIENTAL

### GORA GURE ENERGIA VIVA NUESTRA ENERGÍA

Apirilak 20, 21 de abril, 17:30-20:00  
Erabilera Askotarako Aretoa Sala Polivalente  
Sarrera dohainik, leku guztian bete arte Entrada  
libre hasta completar aforo



Funtsean, planetaren etorkizuna energiaz egingo dugun kontsumo eficiente eta iraunkorren mende dago. EDPk parte hartuko du naturari eskainitako Gutun Zuriaren edizio honetan, familiei zuzendutako ekimen didaktiko batez. Hamabost minutuko saio bakoitzean, modu errazean eta atseginean azalduko dugu zer den eta nola ekoizten den energia, zer den energia berritzagarría, eta nola kontsumitu era eficiente eta iraunkorrean, ingurumenarekin errespetua duten jarrerek eta jokabideak hartuta.

El futuro del planeta depende, fundamentalmente, del consumo eficiente y sostenible que hagamos de la energía. EDP participa en esta edición de Gutun Zuria dedicada a la naturaleza con una iniciativa didáctica pensada para el público familiar. En cada sesión, de 15 minutos, se explica de forma fácil y divertida qué es y cómo se produce la energía, qué es una energía renovable y cómo se puede consumir de forma eficiente y sostenible adoptando actitudes y comportamientos respetuosos con el medio ambiente.

# gutunzuria

JARDUERAK ACTIVIDADES

## ERAOKUSKETA EXPOSICIÓN

### BIDAIA XIX. MENDEKO EUSKAL HERRIAN BARRENA UN VIAJE POR LA EUSKAL HERRIA DEL SIGLO XIX

**Apirlak 10 de abril > Maiatzak 6 de mayo**  
**Medialab 3. 3. solairua Planta 3. Mediateka BBK**  
**Sarrera dohainik Entrada libre**

Erakusketaen, XIX. mendean Euskal Herrira etorritako atzerriko hainbat bisitariren iritziak jaso dira. Bisitari horiek hona hurbildu, eta gure paisaia, jendea, hizkuntza eta ohiturak deskribatu zituzten, 2018ko Gutun Zuria jaialdiko protagonista gailena den Paul David Thoreau (1817-1862) izan zuen jakin-min berak bultzatuta.

Victor Hugo, Humboldt, Gautier eta Lande-ren idazkietan gako batzuk aurkituko ditugu, bidaiai zorrotz horiek euskaldunen herriaz moldatu zuten ‘kanpoko begiradaren’ berri izateko.



Fondo cedido por



La exposición recoge las impresiones de una serie de visitantes extranjeros al País Vasco durante el siglo XIX que se acercaron y describieron nuestro paisaje, sus gentes, lengua y costumbres con la misma curiosidad que animó a Paul David Thoreau (1817-1862), protagonista indiscutible de Gutun Zuria 2018.

En los escritos de Victor Hugo, Humboldt, Gautier o Lande, podemos encontrar algunas claves de la ‘mirada exterior’ que estos perspicaces viajeros se formaron del país de los vascos.

## ZINEMATEKA

### GUTUN ZURIA ZIKLOA CICLO GUTUN ZURIA

**Apirlak 25 de abril > Maiatzak 3 de mayo**



#### EGITARAUAI

Apirlak 25, 17:00 eta apirlak 26, 19:30

DERSU UZALA (EHIZTARIA) Akira Kurosawa (1975) 141', 35mm

Apirlak 25, 19:45 eta apirlak 26, 17:00

WILD (ARIMA BASATIA) Jean-Marc Vallée (2014) 115', Digitala

Maiatzak 2, 18:30

AT PLAY IN THE FIELDS OF THE LORD (JAUNAREN LANDETAN JOLASEAN) Héctor Babenco (1991) 186', Digitala

Maiatzak 3, 17:30 eta 19:45

GORILLAS IN THE MIST (GORILAK LAINOPEAN) Michael Apted (1988) 129', Digitala

Film guztiek JGBA dira (Jatorrizko Bertsioa Gaztelaniazko Azpitituloekin). Zinematekako programazioan aldaketa egon daitezke. Sarrerak: Zinemako txarteldegian eta [www.golem.es](http://www.golem.es) helbidean | Todas las proyecciones son VOSE (Versión Original Subtitulada en Castellano). La programación de Zinemateka está sujeta a cambios. Entradas Taquillas de Cines Golem Alhondiga y en [www.golem.es](http://www.golem.es)

4,5€ / ~~3,5€~~ + info: [www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

#### PROGRAMA

**25 de abril, 17:00h y 26 de abril, 19:30h**

DERSU UZALA (EL CAZADOR) Akira Kurosawa (1975) 141', 35mm

**25 de abril, 19:45h y 26 de abril, 17:00h**

WILD (ALMA SALVAJE) Jean-Marc Vallée (2014) 115', Digital

**2 de mayo, 18:30h**

AT PLAY IN THE FIELDS OF THE LORD (JUGANDO EN LOS CAMPOS DEL SEÑOR) Héctor Babenco (1991) 186', Digital

**3 de mayo, 17:30h y 19:45h**

GORILLAS IN THE MIST (GORILAS EN LA NIEBLA) Michael Apted (1988) 129', Digital